

Erf.: Ordenantza fiskalen aldaketa. Subjektu pasiboa  
Espediente zk.: 15/15

Karmele Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

## **TXOSTENA**

### **Planteatutako gaia**

Ordenantza fiskalen aldaketa. Subjektu pasiboa.

### **Nork eskatu dauen txostena**

Ofizioz.

### **Argudio juridikoak**

#### **a) Aurrekariak**

Bakarra: Kontu batzordeak, Ordenantza fiskaletan subjektu pasiboaren inguruko xedapenak aldatzearen aldeko erispena emon dau.

#### **b) Oinarri juridikoak**

Bakarra: Ordenantza fiskalen aldaketarako, Tokiko Ogasunak arautzen dauzan 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan aurreikusten dauzan pausoak emon behar dira:

- Hasierako onarpena Osoko Bilkurean
- Iragarpena BAOn, iragarki taulan eta aldizkariren batetan
- Behin betiko onarpena Osoko Bilkurean, alegazinatorik egon ezker.
- Behin betiko onartutako testuaren iragarpena BAOn.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2015eko martxoaren 4an

Karmele Muñoa Arrigain  
Jarduneko Idazkaria